

## Sozialista euskalduna

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-05-24: 2.

Joan den asteazkenean agertu zen EGUNKARIAn Maria Jose Telleriak Aurora Baskarani egin zion elkarrizketa. Aurora, Benigno Baskaran zenaren alaba da, euskal sozialisten arteko pertsonaia maitakorrenetakoa. Sozialista euskaldun hauek ezagutu zituen inork (eta neuk izan dut zori hau) ezin dezake lege onez besterik esan. Hala, ongi dio orain Eibarko alkate den Aurora Baskaranek, zilegi dela euskaldun eta sozialista izatea. Hemen argitu behar dena da, sozialista euskaldun hauek Partido Sozialista Obrero Espainolen militatzen zutela, eta alderdi honek ez duela bere historian zehar euskal zaletasunik erakutsi, alderantziz baino. Francoren aurkako lanek asko hurbildu bagintuzte ere, PSOEko espainolismoak urrundu izan gaitu beti. Gaur bertan ere! Eta alderdi honetako kide leial den Aurora Baskaranek bere eritziz besterik badio ere, ez zaigu iruditzen alderdi honek "nazionalismo guztiak" asumitzen dituenik, bere espainolismo bakarra baino. Eta Auroraren aukeran dago hau, noski, hala sinestea, baina beste herritar batzuk ere gurean gaude espainolismoa eta euskararen aurkako zitalkeria salatzea. Bereziki Toribio Etxebarriak hitzegin zezakeen Eibarko sozialisten euskalduntasunaz. Ederki erakutsi bait zuen gerrondoko urte luze eta mikatz haietan bere barru sakonean euskaraganako zuen maitasuna. Benignok ere bai, besteen atzean. Erdara ere erabili zuen Toribiok idazkeran, noski; ez zen, orain Aurora Baskaranek kritikatzten dituen "euskaraz eta kitto!" sentitzen duten euskaldunak bezala, baina, nortzuk dira gure historian zehar eta gaur bertan "gazteleraz eta kitto!" ezartzen digutenak?